

BERTSO TXAPELKETA

Bazen behin Aritz izeneko gizon bat. 25 urte zituen, begi urdinak, ile lisoa eta hanka luzeak. Bere familian, bera eta bere aita bakarrik zeuden, bere ama hil egin baitzen gaixotasun baten ondorioz. Aritz eta bere aita txiroak ziren, eta karabana batean bizi ziren. Aritzen aita gaixorik zegoen ospitalean, eta Aritzek lana zuen baina diru gutxi irabazten zuen. Ez zuen diru nahikoa bere aitari ebakuntza egiteko.

Kalean zihoan lanetik bueltan, eta kartel bat topatu zuen, bertso txapelketa bati buruzkoa zen, bertsoan munduko onena nor zen jakitzeko. Baina arazo bat zegoen 550€ balio zuen txapelketan apuntatzea, bere aitaren ebakuntzaren berdina balio zuen. Hilabete bat gelditzen zen bertso txapelketa izateko eta horregatik beste lan bat behar zuen. Etxerantz zihoanean farola batean lan eskaintzak publizitzatzeko kartel bat zegoen, eta azpian telefonotik deitzeko telefono zenbakiak zeuden. Kozinatzen ona zenez, jatetxe bateko lana aukeratu zuen. Ez zion ezer esan bere aitari. hor ondoan telefono kabina bat zegoen eta orduan dirua sartu zuen, deitu eta lana lortu zuen.

Hurrengo egunean hasiko zen lanean, eta dotore joan behar zuen. Erosketak egitera joan zen berehala. Diru gutxi zuen arren lan horretara dotore joan behar zen, hobeto izango zelako. Laneko lehenengo eguna zen, jatetxeko jabea ezagutu behar zuen. Oso urduri zegoen, ez zekien eta nolakoa zen: jatorra, alaia, burugogorra, iruzurtia...? Jatetxera sartu zen, jatetxea itxita zegoen, ez zen berandu heldu, bere aurrean zegoen jatetxeko jabea. Jatetxeko jabeak hau esan zion:

- Kaixo, zu Aritz zara? -esan zuen jatetxeko jabeak.
- Kaixo, bai, ni Aritz naiz. -esan zuen Aritzek.
- Lanean hasi aurretik galdera batzuk egin nahi dizut. -esan zuen jatetxeko jabeak.
- Ados nago.-esan zuen Aritzek.

Jatetxeko jabearen galderak hauek izan ziren:

- Zer egingo duzu lortzen duzun diruarekin? -esan zuen jatetxeko jabeak.
- Bi gauza egin nahi ditut diruarekin. Bat nire aitaren ebakuntza ordaindu, eta bi Euskal Herriko bertso txapelketara joan. -esan zuen Aritzek.
- Zelako kasualitatea, nire alaba Miak ere Euskal Herriko bertso txapelketan izena eman nahi du. -esan zuen jatetxeko jabeak.
- Mia ere lanera etorriko da, aberatsak izan arren, lanean ez badago, ez diot Euskal Herriko txapelketara joaten uzten. -esan zuen jatetxeko jabeak.
- Ikusi, hor dator! -esan zuen jatetxeko jabeak.
- Kaixo Mia, hau Aritz da. -esan zuen jatetxeko jabeak.
- Kaixo Mia, ni Aritz naiz. -esan zuen Aritzek.

- Kaixo Aritz, ni Mia naiz. -esan zuen Miak
- Orain berba gutxi, bost minutu falta dira jendea etortzen asteko, azkar! -esan zuen Miaren aitak.
- Mia, zergatik hartu duzu nire jatetxean beltzaran bat, Hau bost Mitxelin izarreko jatetxea da. -xuxurlatu zion Miaren aitak Miari.
- Aratz beltzaran horrek, hemen lan egiten badu nire jatetxearen irudi ona galduko da. -esan zuen Mian aitak haserre.
- Aita, ez da Aratz, Aritz baizik eta oso jatorra da. -esan zuen Miak.

Aritz aldatzen zegoen bitartean. Elkarrizketa bukatzeko jatetxea zabaltzeko ordua zen. Kanpoan kriston ilara zegoen. Egun hartan Aritz baratxuria bezain fin ibili zen, eta Miaren aita txundituta gelditu zen. Baina ez zegoen ados Aritz kontratatzea beltzarana zelako.

Hurrengo egunean Aritz dotore-dotore joan zen koplak kantatzen.

Lanera orain noa
traje dotoreakin.
Nire aita bakarrik
eta ni hemendik.

Diru pixka bat lortu
ta Ferrari erosi.
Hori eginda ta gero
guk familia hasi.

Miakin ligatze,
nik behar dut oran
diru pixka bat lortu
eta denok alai.

Kopletan segitu zuen jatetxera heldu arte. Jatetxeko atera heldu zenean, atea zabaldu eta lehenengo gauza ikusi zuena, Mia zein dotore zegoen eta beregana hurbildu zen.

- Kaixo Mia, ze dotore zauden gaur. -esan zuen Aritzek.
- Kaixo Aritz, zu ere oso dotore zaude. -esan zuen Miak.

Aritz lan egun guztietan ibili zen baratxuria bezain fin lanean. Bertso txapelketarako egun bat gelditzen zen, eta orain, ordainsarirako ordua iritsi zen. Aritz oso urduri zegoen. 550€ lortu zituen, bere aitaren ebakuntzak eta txapelketak balio zuen berdina. Ez, zekien zer egin. Orduan bere aitarengana joan zen.

- Kaixo aita. -esan zuen Aritzek.
- Kaixo seme. -esan zuen Aritzen aitak.
- Dirua lortu dut, 550€ dauzkat, ebakuntza egin diezazukete. -esan zuen Aritzek.
- Baina bihar ez da bertso txapelketa? Zoaz bertso txapelketara. -galdetu zuen Aritzen aitak.
- Zuk hori nahi baduzu ados. -esan zuen Aritzek.

Biharamunean, bertso txapelketara abiatu zen. Taldeko faseak oso errez irabazi zituen eta finalean zegoen, baita Mia ere! Finalean Aritz urduri zegoen, inoz ez zuelako jende aurrean bertso edo koplarik abestu. Baina Mia lasai-lasai

zegoen oso konfiatuta zegoen. Miaren finaleko bertsoa hau izan zen:

**Orain dela egun asko
norbait ezagutu.
Denbora asko pasa
oraindik ez ikutu
duela denbora asko
laguntza ukatu,
hemen gertuan dago
finalean dugu.**

Miak eta Aritzek epai-mahaira begiratu zuten eta epai-mahaia ez zegoen oso pozik. Aritzen txanda zen bertsoa kantatzeko.

**Laneko lehen eguna
norbait ikusi nuen.
Bigarren egunean
dotore etorri zen
zerbait berezia,
traje ederra zuen,
baina bere musua
ederragoa zen.**

Berriro epai-mahaiari begiratu eta oraingoan ere ez zeuden oso pozik. Teloia itxi eta Aritz eta Miak patxo eman zioten elkarri. Berriro teloia zabaldu zuten emaitzak prest zituztenean, eta Miak irabazi zuen. Aritzek ez zuen bere ametsa lortuko baina bai Miaren maitasuna. Aritz eta Miak ezkondu nahi zuten eta Miaren aitari esan zioten. Bere aitak ez zuen oso ongi hartu, eta Miaren aitak Miari bakarkako elkarriketa edukitzea eskatu zion. Miaren aita ez zegoen ados Aritz beltza zelako, baina Miak esan zion bere aitari, pentsatzen zuelako Aritz lanean kontratatzen bagenu irudi ona kenduko zigula. Baina ikusi zuen Miak arrazoia zuela. Lagako zion baina bakarrik jatetxean jarraitzen bazuen. Miak baietz esan zuen.

Aritzek, Miari fabore bat eskatu zion bere aitaren ebakuntza ordaintzea, Miak baietz esan zion. Aritzen aita sendatu zen. Hala bazan eta ez bazan sar dadila bi bertsolarien plazan. Eta irten dadila familia berriaren plazan.

Leo

